

Gurean dira dagoeneko atzeritik etorritako ikasturteko lehenengo Erasmus ikasleak

2015/09/08

Iritsi dira atzerriko Erasmus ikasleak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera. Udazkeneko lehenengo txanda honetan zortzi ikasle etorri dira fakultateko nazioarteko programa egitera. Aurten, Polonia, Letonia, Hungaria, Eskozia, Danimarka eta Turkiako ikasleak dira.

Argazkian, ezkerretik hasita: Wojciech Dołżyk (Polonia), Kristīne Āne (Letonia), Fanni Halmy (Hungaria), Luize Zaksa Ozola (Letonia), Justyna Gogolewska (Polonia), Kirstie Kushana Maddison (Eskozia), Jesper Johansen (Danimarka) eta Furkan Öztürk (Turkia).

Behin harrera plana egin eta gero, propio eurentzat prestatutako Teacher education ikastaroan jardungo dira zortzi ikasle horiek. Bigarren txandakoak 2016ko otsailean etorriko dira. Orduan, Hezkuntza edo Komunikazio programak egin ahal izango dituzte.



Lehenengo txanda honetan, atzerriko zortzi ikasle etorri dira.